

207. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Euskara herrian,
zer berri?



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Euskararen datuak	3
Euskara plana 2030.....	6
Elkarrizketa	10
Harrera egitasmoa	13
Berriak	14
Elegune.....	16

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.




Euskararen egoera herrian

Joan den irailean aurkeztu ziren Soziolinguistika klusterrak egindako hizkuntzen erabileraren kale neurketaren datuak. Hiru aldiz egin da neurketa Azpeitian, 2009an, 2016an eta, azkena, 2021ean.

Neurketaren emaitzak aztertu aurretik, ordea, ikus dezagun zer dioten ezagutzari, lehen hizkuntzari eta etxeko erabilerari buruzko datuek:


Ezagutza | EUSKALDUNAK



Azken 30 urtean, ezagutzak 4,5 puntu egin du behera, erdaldunen kopurua ere hazi egin da. Hala ere, UEMAn egoteko kontuan hartzen den indizea (euskaldunak + ia euskaldunen erdiak) ezagutzarekin lotuta kalkulatzen da, eta % 70etik gorakoa izan behar du, eta Azpeitikoa %86,9koa da.


Euskararen datuak

Lehen hizkuntza | EUSKARA



Etxean jasotzen den lehenengo hizkuntza zein den, alegia. Honek lotura du gaitasunarekin eta erabilerarekin. Herrian 12,8 puntu jaitsi da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa azkeneko 30 urtean.


Etxeke erabilera | EUSKARA



Etxean zer hizkuntza erabiltzen den neurtzen da. Datu hauen arabera, etxeke erabilera ere jaitsi egin da azken 30 urteotan, 14,4 puntu, hain zuzen, eta gora egin du, berriz, euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak.

Azken neurketaren emaitzak dira honako hauek:

Hizkuntzen kale erabilera. Datu orokorra. 2021 (%)



10 lagunetik ia 9 euskaraz ari ziren neurketa egin zenean.

Ikerketa-garaian, Azpeitiko kaleetan topatutako 10 lagunetatik 8 baino gehiago euskarazko elkarrizketatan ari ziren (zehazki, % 86,6). Gainerakoak gaztelaniazko (% 10,1), eta beste hizkuntza batzuetako elkarrizketetan ari ziren (% 3,3).

Ikus-entzunezkoen kontsumoa

Emaitzek adierazi dute, besteak beste, gehienek ETB1 edo Clan (LH) edo T5 (BH) ikusten dutela telebistan, plataforma erabilienean Netflix dela eta gehienbat gaztelaniaz ikusten dutela. Bestalde, sare sozial erabilienean Youtube da adin guztietan eta ezer argitaratzekotan, batez ere gaztelaniaz egiten dute. Musika ere Youtubetik entzuten dute batik bat, eta berdin euskaraz zein beste hizkuntzatan.





Euskara Plana 2030: euskaraz biziko bagara, euskararen aldeko hautua berretsi behar dugu

PARTE HARTZEKO PROZESUA

Azpeitiko herritarren %83 euskalduna (euskaraz daki) da. Datu horrek lasaitasuna ematen du alde batetik euskararen inguruko eginbeharrei dagokienez; baina, bestetik, arrisku eta erronka garrantzitsuak ere jartzen ditu aurrean. Horiek guztiak kontuan hartuta landu nahi du Udalak datozen urteetarako euskara plana, euskara sustatzeko helburuz eta hizkuntzaren bitartez elkarbizitza eraikitzen jarraitzeko tresna moduan erabiltzen duen herria izaten jarraitzeko. Horretarako ezinbestekoa da hizkuntzaren kontzientzia hartzea eta honek herria eta herritarren harreman sareak eraikitzeko duen gaitasunaz jabetzea. Planaren helburuetako bat, beraz, Azpeitiak epe luzera arnasmune izaten jarraitzeko beharrezkoa duen estrategia diseinatzea da.

2030 urtera begirako plan estrategiko hori gauzatzeko, ordea, ezinbestekoak dira eragileak eta herritarrak; haien pertzepzioak, esperientziak, iritziak eta ekarpenak jaso ditu udalak Emunekin batera antolatutako prozesu batean. Prozesu horrekin lortu da herritar eta eragileekin planaren lerro orokorrak zehaztea eta aurrera begira egin beharrekoak eta planaren garapena ikuskatzeko Euskararen Mahaia sortzea. Joan den udazkenean gauzatu diren bi fase izan ditu prozesuak: alde batetik, herritarrei luzatutako inkesta bat egin zen; QR bidez edo udalaren webgunean sartuta nahiz etxez etxe banatutako eskuorrien bidez hartu ahal izan zuten parte herritarrek inkestan.



Bigarren fasea hasi aurretik, Azpeitiko hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren emaitzen aurkezpena egin zen Soziolinguistika klusterraren eskutik eta, ondoren, talde dinamiken saioei ekin zitzaion urrian, sei saio izan dira guztira eta saio horietan gai bat hartu zen ardatz eta haren inguruko ekarpenak jaso ziren: Hezkuntza eta familia, Aisialdia, kirola eta jaiak; Kultura eta sormena, Bizilagun berriak, Lan mundua, zerbitzu publikoak eta turismoa eta, azkenik, Euskalgintza izan ziren saioetan jorratutako gaiak. Amaitzeko, osagarri gisa, hainbat elkarrikketa ere egin dira abenduan euskararen alorrean lanean ari diren herritarrekin, bestelako ekarpenak jasotzeko.

Planaren osaketan 150 inguru herritarrek hartu dute parte, eta bildutako informazioa atondu eta plan batean egituratzeko lana Emunen bidez landu da.

EUSKARA PLANAREN NONDIK NORAKOAK

Baliabideak	Pertsonak	Informazio fluxuak	Erabaki guneak	Neurriak
Hainbat motako baliabideak eskatzen ditu ekintza plan honek. Batez ere ekonomia eta pertsona mailakoak.	Oinarrian daude Azpeitiko herritarrak eta talde moduan antolatuta daudenak.	Aliantza bidez garatuko den ekintza plana da eta funtsezkoa izango da guneen eta interes taldeen arteko informazio eta komunikazio fluxuak ondo zehaztea.	Euskararen mahaia planaren jarraipenerako organoa izango da. Proposamen zein lanketa berriak egiteko gune ere bada.	Azpeitiko errealitate soziolinguistikora egokitutako plana da eta parte hartze prozesuan zehar detektatutako puntuetan eragiteko neurriak proposatzen ditu.

Euskara plana 2030

Azpeitiko euskararen plan estrategikoa herrira, herritarren harreman sareetara eta herri dinamikara egongo da zuzenduta. Izan ere, Azpeitiko hizkuntza nagusia euskara da, Azpeitia herri euskalduna da herritarrek hala aukeratu dutelako. Baina eguneroko bizimoduan aldaketa handiak gertatzen ari dira, harremanetan, teknologia berrietan, biztanle mugimenduetan, etab. eta aldaketa horiek zuzenean eragiten diote hizkuntzari. Horri aurre egiteko, ezinbestekoa da, Udalaren iritziz, euskararen aldeko hautua egiten jarraitzea. Eta horretan laguntzera dator Plan Estrategikoa.

Azpeitiko Euskararen Plan Estrategikoaren jarraipenerako gunea Euskararen Mahaia izango

da. Onarpena Udalbatzak emango dio, eta plan horretako ekintzak Euskara Batzordean erabakiko dira, hala behar bada. Mahaiak herri mailako erabakiak hartzen ere lagunduko du.

Planaren ezaugarriak

Saretzea
Arloartekotasuna
Elkar entzutea
Aniztasuna
Ezberdinen arteko adostasuna
Eragileen eta herritarren parte hartzea

ERRONKAK ETA LAN-ILDOAK

ERRONKAK	LAN-ILDOAK
EUSKARAREN BIZIBERRITZEA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK LANTZEN DUEN HERRIA	• Gobernantza partekatuaren bidezko antolaketa • Bizikidetza eraikitzea euskara erdigunean jarrita eta bestelako hizkuntzak kontuan hartuta • Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa landu
HIZKUNTZA PORTAERA KONTZIENTEAK DITUEN HERRITAR SARETUAK EUSKARAZ BIZI DEN HERRIA	• Euskararen erabilerari eustea eta gune gehiagotara areagotzea • Euskararen ezagutza areagotzea

Erronka eta lan-ildo horiei aurre egiteko, datozen urteetan garatzeko ekintza-plan zabala taxutu da.

EUSKARAREN MAHAIA

Taxutu den planaren ikuskapena, segimendua eta garapena bideratzeko, beharrezkoa da euskararen mahaia eratzea, adierazitako erronka estrategikoen araberako eduki espezifikoak eraiki eta etengabe berritu ahal izateko.

Mahaiaren funtzio nagusia, beraz, planaren segimendua egitea, bertan parte hartzea eta zaindari-lana egitea izango da.

Mahai honetan herritar orok izan dezake lekua, konpromiso maila norberak zehaztuko baitu,

ekintzen edo egoeraren arabera. Udazkenetik honako parte-hartze prozesuan jasotakoak aurrera ateratzeko filosofiarekin sortu eta garatuko da mahaia.

Euskararen mahaia urtean hiru aldiz egingo du bilera: urtarrilean, maiatzean eta azaroan.

Parte-hartzaileak: Herriko hainbat esparrutan lanean ari diren eragileak eta norbanakoak. Interesa duen edonork parte har dezake, baina helburua da euskara zehar-lerrokoa izatea eta denon artean herriko esparru guztietan eragiteko gaitasuna izatea.

Lan egiteko modua: Udalak eta dagokien eragile zein norbanakoek aurrez prestatuta eramango dute bilera, puntuak eta aurkezpenak. Bilerak gehienez ordu eta erdikoak izango dira; eta, oro har, bi zati izango dituzte. Batetik, urteko kudeaketa planaren aurkeztea, jarraipena edo balorazioa egitea. Bestetik, edozer iritzi edo ekarpen jasotzea.

Bileraren gidaritza udalak, eragileek edo norbanakoek hartuko dute, gaiaren eta eginiko lanketen arabera.

HEMENDIK AURRERA ZER

Dagoeneko abian da Euskara Mahaia, urtean hiru bilera egingo dira, urteko ekintza planaren jarraipena egiteko. Horrez gain, ekintza zehatzak antolatzeko, bestelako bilerak edo harremanak iraunkorrak izango dira, eragileen nahiz udalaren artean.

2023ko beste bi hitzorduek:

- Maiatzaren 10ean, 18:30ean, Basazabalen
- Azaroaren 8an, 18:30ean, Basazabalen

Herritar eta eragileekin batera landu dira planaren lerro orokorrak, aurrera begira egin beharrekoak eta Euskararen Mahaia sortzeko prozesua.



**Kontsultatu
Euskara plana hemen**



“Kontzientzia lantzeko beharra, bizilagun berrien integrazioa eta gaztetxoek ohiturak dira parte-hartze prozesuan ateratako kezka nagusiak”

Eneritz Albizu

Euskara batzordeburua



2023-2027 Euskara Plana osatu berri da, 150 azpeitiar ingururen ekarpenei esker. Hurrengo hitzordua otsailaren 8an izango da, Euskara Mahaiaren lehen bileran. Azpeitia euskararen arnaguneetako bat den arren, herria, ohiturak eta hiztunak asko ari dira aldatzen. Eneritz Albizu udal Euskara batzordeburuak nabarmendu du beharrezkoa dela egungo egoera ondo aztertzea eta hari behar bezala erantzutea, eskuartean ditugun erronkak aukera bihurtzeko.

Eraitza onak utzi dituzte kaleko erabileraren neurketek: euskararen erabilera oso sendoa da Azpeitian. Hala ere, adierazi duzue horrek ez duela lasaikeriara eraman behar. Zergatik?

Argi dago euskara bizi-bizirik dagoela Azpeitian, eta gaur-gaurkoz arau soziala euskaraz hitz egitea dela gurean. Adin guztietan hizkuntza nagusia da, eta horrek erakusten du Azpeitian, etxean nahiz kalean euskara transmititzeko baldintzak eta nahia ditugula. Kale neurketa, Soziolinguistika Klusterraren eskutik, berme zientifiko guztiekin eginiko azterketa da, 3.000 solaskidetik gora jaso dituen, zortzi egunetan. Dena den, argi izan behar da une eta ibilbide jakin bateko argazkia dela kale erabilerarena. Alegia, Azpeitian euskarak duen presentziaren zati bat soilik jasotzen du, eta beharrezkoa da beste ikerketa batzuekin osatzea.

Euskara bizirik dago, baina erronka asko ditugu aurrean oraindik.

Beste ikerketa batzuetan ikusi dira atzerapausoak?

Oro har, udalerrri euskaldunenetan atzerakada bat izaten ari gara, batik bat, erabilerari dagokionez. Azpeitia ez da salbuespena. EUSTATEk argitaratu dituen azken zentsuko datuen arabera (2021), beherakada nabarmena egon da, esate baterako, etxeko erabileran. 1991rekin alderatuta, 14 puntu jaitsi da etxean euskaraz egiten dutenen ehunekoa. Hamar etxetik seitan egiten da euskaraz Azpeitian (%64). Horrekin lotuta etxetik euskara lehen hizkuntza gisa jaso duten herritarren kopuruak ere behera egin du, 13 puntu: %71 dira. Horrek eta beste hainbat ikerketak erakusten dute gure herria aldatzen ari dela: herritarren hizkuntza perfilak eta ohiturak aldatzen ari dira, eta horrek egoera eta erronka berriak aurkezten dizkigu. Beharrezkoa da egungo egoerari egokitutako plangintzak eta ekintzak gauzatzea, erronka horiek aukera bihur daitezen. Batzen gaituen hizkuntza izan daiteke euskara, berdin du non edo nola jaso dugun. Hori nonbait lor badaiteke, Azpeitian da.

Oraintsu ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko ikerketa bat egin du UEMAK, eta erakutsi du Azpeitiko belaunaldi gazteetan oso erdarazkoa dela kontsumoa. Erabilerari begira zer ondorio ditu horrek?

Herriko lau hezkuntza zentroetako 10 eta 18 urte arteko ikasle guztiek bete dituzte ikus-entzunezkoen inguruko galdetegiak. Gehien erabiltzen diren aplikazioei erreparatzen badiugu, Youtuberi eta TikToki, gaztelaniaren presentzia erabat gailentzen da, eta ingelesa ere euskararen aurretik dago. Horren ondorioz, gure gaztetxoaren erreferenteak eta ereduak gaztelaniazkoak dira; baita jolas, abesti eta aisialdiko baliabide asko ere. Musikarekin gauza bera gertatzen da. Badakigu kulturak gure mundu

ikuskeran garrantzia handia duela; eta, beraz, baita gure hizkuntza portaeretan eta hautuetan ere. Gai hau ez da erraza, erabaki ausartak hartu beharko lirateke goi-erakundeetatik, baina herritik eta etxetik ere asko egin dezakegu: herriko sortzaileei baliabideak eta zilegitasuna emanda, haien jarduna transmitituta eta euskarazko adierazpideei lekua eskainita, gure antzestokietan zein etxeko sukaldean.

Euskararen ezagutzari begiratuta, adin-talde batzuetan ia unibertsala da ezagutza. Batek pentsa dezake horrekin erabilera seguru dagoela Azpeitian.

Horrek aukera ugari ematen dizkigu euskaraz aritzeko eta euskararen aldeko hautua errazteko. Oinarri sendoa dago; eta, gainera, asko dira udal euskaltegian euskara ikasten ari diren herritarrak ere. Txalotzekoa da ikasle horien esfortzua, ezinbesteko pieza dira hizkuntzaren normalizazioan. Halere, noski, ezagutza %86koa izan arren, euskararen erabilera ez dago ziurtatuta. Gero eta euskaldun gehiago dagoen arren, euskaldun profila aldatzen ari da. Gero eta herritar gehiagok euskara bigarren hizkuntza bezala du, eta horrek aldaketa bat dakar. Ziur aski, pertsona horiek erosoago sentitzen dira beren ama hizkuntzan, euskaraz baino. Beraz, garbi dago euskaraz gain, beharrezkoa dela euskaraz egiteko hautua ere transmititzea; etxean ez ezik, kanean ere bai. Ikusarazi behar dugu hizkuntza txiki baten jabe garela, horrek, herri bezala, berezi egiten gaituela eta hemen sekulako aukera dugula euskaldun izateko nahiz gure hizkuntza indartzeko. Gure herriak eta herritarrek aukera asko eman diezazkiokete euskarari.

Euskaraz gain, beharrezkoa da euskaraz egiteko hautua ere transmititzea.

Migrazio-mugimenduen eragina nabari da Azpeitian ere. Horrek euskarari dagokionez dakartzan aldaketei begira, ari zarete proiekturik martxan jartzen?

Euskara plana osatzen aritu garenean ere behin eta berriro aterata den gaia da hau. Hainbat herrialdeetako bizilagunak ditugu, hainbat hizkuntza hitz egiten dituztenak. Askok, gainera, beraien iruditegian dute Espainiako Estatura doazela, gaztelaniaz bizi den herri batera. Hor lan handia dago egiteko: patxadaz eta enpatiarekin. Harrerez gain, integrazioan eta eguneroko bizimoduan jarri behar dugu arreta. Hori, udalak ez ezik, herriko eragile eta norbanakoek ere egin behar dugu. Esparru honetan, goraipatzekoa da, besteak beste, Elkar-ekin taldeak egiten duen lana: hurbilekoa eta eraginkorra. Gaur gaurkoz, udaletik, eta euskarari lotuta, hainbat egitasmo badira martxan. Gaztetxoenei begira, harrera saioak eta etorkizun programa ditugu, iritsi berritan gutxieneko euskararen ulermen maila lortu eta ikasleen ongizatean eragin asmoz. Horrez gain, udal euskaltegian ohiko euskara ikastaroez gain, ikastaro zehatzak antolatzen dira, lanbide jakinei lotuta, beharraren arabera. Integrazio saila ere lanean ari da lehen harreraren zein eguneroko bizimoduan lagundu asmoz. Badakigu zeharkakotasunez landu beharreko gaia dela hau, eta lanean jarraituko dugu bide honetan sakontzeko.

Datozen urteetarako bideorri bat landu duzue azken hilabeteetan, udalaren eta hainbat eragilearen parte-hartzearekin. Nolako prozesua izan da?

Prozesua oso polita izan da, benetan pozgarria izan da horrenbeste jende biltzea euskararen eta haren erronken inguruan hizketan. Galdetegien, talde dinamiken, elkarrizketen eta mezu bidezko ekarpenen bidez, 150 pertsona inguruk parte hartu dute arnasa luzeko plan honetan. Erakundeek asko egin dezaketen arren, euskararen normalizazioa ez da instituzioetatik lortuko. Erakundeei dagokigu baliabideak jartzea, erabaki politiko ausartak hartzea eta herritarrei euskaraz bizitzeko erraztasunak ematea. Euskaraz bizi nahi badugu, ordea, denon artean egin behar dugu, herritik eta norbere ohituretatik abiatuta. Horregatik uste dut funtsezkoa zela plan hau elkarlanean egitea. Planaren osaketa

bera ez ezik, exekuzioa ere denon artean egin behar dugu, eta horretarako sortuko da Euskara Mahaia. Herri honetan badugu esperientzia elkarlanean, kultur arloak asko erakutsi digu, ikusi dugu posible dela benetako lankidetzat bat, bi hankako politika egiteko modu bat, herriarekin sintonian. Sinisten dut euskaratik ere horrela funtziona dezakegula; are gehiago, uste dut horrela lan egin behar dugula.

Nabaritu duzu sintonia bat herriko eragileen artean? Zer iritzi agertu dituzte?

Bai. Batetik, gai berak agertu dira behin eta berriro: kontzientzia lantzeko beharra, bizilagun berrien integrazioa eta haur zein gaztetxoek ohiturak dira parte-hartze prozesuan ateratako kezka nagusiak. Akordio bat bada gai horiek estrategikoki lantzearen inguruan. Horiez gain, ordea, kezka, erronka eta ekintza asko proposatu dira; kontu zehatzak, baina garrantzitsuak, arloz arlo jardunetik edo errealitateetatik soilik ikus daitezkeenak. Horrek asko aberastu du plan hau. Behin eta berriro esan dugu ikuspegi osoa izan nahi zuela plangintzak, eta lortu dugula uste dut.

Zer jomuga jarri dituzue datozen urteei begira?

Hiru multzotan banatu da euskara plana: *euskararen biziberritzea ikuspegi komunitariotik lantzen duen herria; hizkuntza portaera kontzienteak dituzten herritar saretuak; eta euskaraz bizi den herria*. Horien bidez eragin nahi da euskararen ezagutzan, erabileran eta kontzientzian. Azpeitiak arnasmune izaten jarrai dezan, euskarak zeharkakoa izan behar du. Hori da erronka: euskaraz bizitzea, herritarrei horretarako baliabideak eskaintzea eta arloz arlo euskara ohiko hizkuntza izatea gurean. Euskaraz bizitzen jarraitu nahi badugu, beharrezkoa da arloz arlo eragitea; eta, jakina, nahitaezkoa izango da denon artean egitea.

Planaren lanketa prozesuan jende asko bildu da, eta hori oso pozgarria da.

Harrera egitasmoa: Euskara emozioen bidez erakartzeko eta integrazioa errazteko

Aurreko urtean abian jarri eta emaitza positiboak jaso zirenez, joan den irailetik berriro ere ekin diote Harrera egitasmoari; hots, etorri berriak hizkuntzaren eta emozioen bidez herrian integratzea helburu duen programari. Aurten 8 bat haur/neraberekin lan egingo dute.



Herrira iritsi berriei behar bezalako arreta egitea eta baliabideak eskaintzea da helburua. Ikastetxeetan sartzen diren etorri berriei behar bezalako harrera egitea eta baliabideak eskaintzea funtsezkoa da, ikasketa prozesuan aurrera egiteko behar beharrezkoa delako euskara eta baita integratzeko tresna ere badelako euskara.

Proiektua ikastetxeekin batera aurkeztu zen, hezkuntzaren baitan kokatu delako egitasmoa, eta elkarlan hori, gainera, aberasgarria delako. Izan ere, ikastetxeetara heltzen diren azpeitiar berriei zuzenduriko harrera da. Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu bitarteko haur eta gaztetxoaren artean gauzatzen da, eta Kepa Urbietako Udal Euskaltegiko irakasleak sortu, landu eta proposaturiko metodologiaren bidez jarri zen martxan 2021ean.

EUSKARAREN BIDEZ, EMOZIOAK LANDU ETA INKLUSIOA ERRAZTU

2006tik EtorkiZUn programa abian da Azpeitian. Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Udal Euskara

Patronatuaren eta ikastetxeen elkarlanaren bidez lantzen den programa. Programaren helburua da haur eta gazte etorkinei euskara ikasteko bide eraginkor bat eskaintzea Azpeitiko bizitzan errazago txertatzeko helburuarekin, batez ere eskolan eta lagunekin. Programa horren bidez, euskaraz trebatzeko zerbitzua eskaintzen zaie, eskola orduetatik kanpo, herrira etorri berriei, euskaraz ulertzeko eta mintzatzeko oinarritzko maila lor dezaten.

Ikasleak etorri berritan hartu eta harrera goxoa eginez, emozioen bidez, hizkuntza ikastea errazterik ba ote dagoen probatzen da Harrera proiektu pilotu honekin. Helburu nagusia da hizkuntza lehenbailehen ikastea, inklusioa errazten delako. Aurreko urtean emaitza ona izan denez, aurten ere horrekin jarraituko dute, 20 egunean 40 orduko lanketaren bidez. Harrera egitasmoan egindako aurrerapenari jarraipena emateko Etorkizun egitasmoa batzen dira ondoren etorri berri horiek, beren ikasketa prozesuan jarraitzeko.

**MERKATARI ETA OSTALARIENTZAT
ZERBITZUA**

UEMArekin elkarlanean, herriko merkatariek eta ostalariek hizkuntz paisaia euskalduntzeko doako zerbitzua dute. Kartelak, menuak, oharrak... beharrezko materiala sortu, diseinatu eta helarazten da, euskara lehen lerroan jartzeko helburuarekin. Horrez gain, uda atarian, bisitarientzat eginiko mahai gaineakoak banatzen dira jatetxeetan, gure hizkuntzari, turismo ikuspegitik ere, balioa emateko.

HEDATU EGITASMOA

Haur zein gaztetxoek euskara hizkuntzen mapan kokatzeko eta hiltun gisa ahalduztzeko hainbat tailer eta unitate lantzen dira herriko hezkuntza zentroetan, HHTik Batxilergoa bitarte. UEMaren bidez, ikasle, irakasle eta gurasoentzat eskaintza jarraia dago abian.



ELE ORDENANTZA ONARTUTA

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren prozedura arautzeko ordenantza onartu du udalak 2022an. Herriko egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztien azterketa egiten da dagoeneko, inpaktua aurreikusi eta neurri zuzentzaileak ezartzeko.



DOAN IKASTEKO AUKERA

Udal euskaltegiko eskaintzaren eta udalaren beka sistemaren bidez, edozer mailatan doan ikasteko aukera dute herritarrek. 2020az geroztik, autoikaskuntza edo online aukera ere eskaintzen da. Guztira, 119 ikasle ari dira euskara ikasten edo lantzen lehen urratsetik C2 maila artean.

LASTER EGOITZA BERRIA

Urte luzez Perdilegin izan dute egoitza Euskara Patronatuak eta Udal euskaltegiak. Epe laburrean, ordea, Perez Arregi plazatzoko Telefonikako eraikineri lekualdatuko dira. Izan ere, Perdilegin mendekotasuna duten pertsonentzako zentro balioanitz egitea adostua dute udalak eta Foru Aldundiak eta horren baitan eremua husteko prozesua abian da. Telefonikako eraikina eraberritzearen azken fasean da, eta hilabete gutxiren buruan prest izango da egoitza berria hartzeko.



EUSKARALDIA ETA HIKALDIA

Euskaraldiaren hirugarren edizioa izan da iazkoa. Hainbat ekintza egin dira: txapa banaketak, mural margoketa, herriko ikastetxeekin grabatutako bideoklipa, bideo-elkarrizketak... aurtengo berezitasuna, ordea, Hikaldia izan da. Hika eta, bereziki, noka sustatzeko hainbat ekintza antolatuta dira: Hika pegatinen banaketa, Hikalguna, Hikapoteoa...

Elegune, lan mundua euskalduntzeko zerbitzuak



Azpeitiko Udalak, Euskara Patronatuaren bidez, Azpeitiko enpresei hizkuntza gestiorik egokiena lortzen laguntzeko zentro teknikoa da Elegune. Zerbitzu profesionala eta integrala eskaintzen du eta enpresetan euskarari dagokion tokia eta funtzionaltasuna aurkitzeko, laguntza eta baliabideak eskura jartze du eginkizun. Hau da, Azpeitiko enpresetan euskara planak garatzea. Euskara plan baten helburua erakunde bateko erabilera eta presentzia areagotzea eta erakundearen kulturen eta sistematikan integratzea da. Euskara plan baten fase hauek garatzen laguntzen dute:

- **Erakundearen egoera soziolinguistikoaren azterketa eta diagnosia (planifikazioa).**
Diagnostiko honetan enpresaren hasierako egoera zein den zehaztuko da, eta horren arabera, hobetzeko arloak identifikatu eta hobetzeko proposamenak egingo dira.
- **Planaren implementazioa (gauzatzea).**
- **Helburuak lortzeko ekintzak jarriko dira abian:** itzulpenak eta zuzenketak; formazioa; euskarazko baliabide informatikoak; baliabideen bilduma; euskararen presentzia; erabilera eta kudeaketa; hizkuntza-irizpideak finkatzea, hizkuntza-politika, alegia; ahozko erabileraren neurketak; ziurtagiriak lortzeko aholkularitza eta laguntza.
- **Planaren ebaluazioa (emaitzak neurtzea).**
- **Planaren berrikuspena (plana doitzea).**

PROZESUAREN URRATSAK

Erakundearen organo nagusiaren konpromisoa da ezinbesteko baldintza, eta urratsak honako hauek dira:

- **Koordinatzailea eta euskara batzordea izendatzea.**
- **Erakundearen hizkuntza politika landu eta indarrean jartzea.**
- **Euskara plana onartzea.**
- **Euskara planaren inguruko komunikazioa zabaltzea.**
- **Lortzen diren emaitzak ebaluatzea**

Azpeitia
Denontzat

www.azpeitia.eus